

# Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa

IÑAKI GAMINDE — JOSÉ IGNACIO HUALDE  
(Euskal Herriko Unibertsitatea) — (University of Illinois)

## Abstract

*In this paper, we study a number of accentual isoglosses in Basque, with particular attention to the western area. The ultimate goal of this work is to obtain a more precise knowledge of accentual variation within the Basque-speaking territory. An important feature in the classification of Basque accentual types is the presence vs. absence of contrastive accentuation. In the first section of this paper, we study the main distributional facts pertaining to this feature. In the second section, we examine four important accentual facts in the central and western area: the directionality of the rule of stress assignment, the geographical extension of the 'pitch-accent' type, the accentuation of plural forms and the distribution of certain accentually marked roots. Finally, in the fourth section, we make an attempt at classifying the Biscayan varieties in a number of specific types according to their accentual characteristics.*

## 0. Sarrera<sup>1</sup>

Oraintsu arte, euskal fonologiaren ikerketan aurreratzeko izan dugun arazorik larriena datuen falta izan da; edo, hobe esan, fenomeno fonologikoen mugei buruzko ezagutza eza. Hemen "muga" hitza bi zentzutan hartu behar da: alde batetik muga geografikoak; hau da, fenomenoaren hedadura, eta beste aldetik, murriztapen morfologikoak, sintaktikoak, lexikoak, etab. Adibide bat emateko, euskaraz *seme/semia* edo *mutil/mutilla* bezalako alternantziak aurkitzen ditugula ikusita, honako arauak proposa ditzakegu (arau bat datuei buruzko jeneralizazio bat besterik ez da):

(a)  $e \rightarrow i / \_ V$

(b)  $l \rightarrow ll / i \_ V$

Baina beste norbaitek berak ezagutzen duen euskaran (a) edo (b) ez dela betetzen erantzun diezaguke. Gainera, (a) eta (b) arauak dituen hizkera bat sakonkiago aztertzen badugu, agian ikusiko dugu hizkera berean *semia* baina *semealabak* daukagula

(1) Gure esker ona Gorka Elordiera eta Koldo Zuazori beren oharrengatik eta gure berriemaile guztiei eman dizkiguten datuengatik.

(eta ez *\*semialabak*), edo *mutilla* horrela ahoskatu arren, *familia* esaten dela (eta ez *\*famillia*), arauak esaten duenaren aurka.

Ondorioak izan behar du euskararen soinu egitura zer nolakoa den jakiteko euskaraz betetzen diren fenomeno fonologikoak zerrendatzea ez dela nahikoa; aitzitik, fenomeno bakoitzaren era guztietako mugak aztertu behar ditugu. Helburu honetara iristeko biderik zuzenena ahalik eta hizkera gehienek deskribapen zehatzak egitea da. Modu honetan jakin ahal izango dugu fenomeno jakin bat non betetzen den eta non ez, eta hizkera bakoitzean zer nolako murriztapenak dituen. Lan honek euskal fonologiaren irudi egokiago eta sakonago bat emango liguke, dudarik gabe. Baina, lan hau, noski, lan erraldoia da. Kasurik onenean ere, hizkera multzo txiki batentzako deskribapenak izatea baino ezin dugu espero. Horregatik, beste metodologia mota bat erabili behar dugu lana osatzeko. Metodologia hau atlas edo galdetegiarena da. Behin fenomeno garrantzitsuak zeintzu diren aurkituz gero, galdetegi egoki baten bidez datu asko hizkera anitzentzat lor ditzakegu epe laburrean. Gure kasuan Azkueren *Erizkizunde Irukoitza* aipa dezakegu.

Agian aipatu ditugun arazoak larriagoak (izan) dira euskal azentuaren arloan beste edozein arlotan baino. Oso gutti aurrera daiteke bakoitzak hobekien ezagutzen duen azentuera azentu eredu orokortzat hartuz (Azkuek eta Altubek egin zuten bezala). Zorionez, azken urteotan euskal azentuari buruzko lanak ugartuz joan dira. Ikerketa lan honen osagarri, artikulu honetan azentuari buruzko datu konkretu batzuen hedadura geografikoa argitzea hartu dugu aztergai.

Datuak ondo aukeratuz gero, haien isoglosak oinarri tinkoak izan daitezke sailkapenean aritzeko. Are gehiago, sailkapenaren helburua zein den (adibidez, sinkronikoa edo diakronikoa), isoglosa desberdinak izan daitezke garrantzitsuenak.

Ohar bat egin behar da. Zenbait eskualdetan azentubidea aldatzen ari da. Orduan, kasu batzuetan gerta daiteke ematen dugun azentuera ez izatea bakarri herri horretan. Eskuarki, azentua aldatzen ari den eskualdeetan, aldakuntza kontraste fonologikoak murriztearen aldekoa da. Hau da, gero eta azentuzko bereizketa fonologiko guttiago egiten dira. Adibidez, Hualderen (1993b) artikuluan hiru hiztunen emaitzak erabili genituen Azpeitia aldeko azentubidea aztertzeko (bi Azpeitikoak eta bat Urrestilgoa). Garai hartan, Azpeitiko beste hiru hiztun elkarriztatu genituen, baina haien datuak ez erabiltzea erabaki genuen, beste hiztunek egiten zituzten bereizkuntzak haiek bakarrik zalantza handiekin eta kontsistentziarik gabe egiten baitzituzten. Altunak (1994) beste horrenbeste esaten digu; hots, Azpeitiko gazte batzuk berak txikitan ikasi zuen azentubidea ez dutela erabiltzen. Erreteriko hizkerarako gauza bera esan dezakegu. Mitxelenak (1976, 1981) aipatzen dituen azentuzko bereizkuntzak (hala nola singular eta pluralaren artekoa) elkarrizketatu ditugun hiztun gazteek ez dituzte egiten. Gauzak horrela izanik, lan hau burutzeko, herri gehienetarako hiztun bakar bat elkarrizketatu dugula kontuan hartu behar da.

Artikulu hau honela dago antolatuta: Lehen atalean Euskal Herri osoari dagokion bi azentu isoglosa garrantzitsu aztertzen ditugu: azentu bereizgarria duten eta ez duten hizkerak bereizten dituen, eta singular/plural azentu bereizketarena. Bigarren atalean mendebaldeko euskalkieie dagokien azentuzko fenomenoak sakonkiago

miatzen ditugu, haien hedadura geografikoa kontuan hartuz. Hirugarren atalean Bizkaiko hizkerak sailkatzen ditugu haien azentuzko ezaugarrien arabera eta aztertu-tako erro markatuei buruzko datuak tauletan biltzen ditugu, fenomeno bakoitzaren banaketa hobeki erakusteko. Azkenik, laugarren atalean zenbait ondorio ateratzen ditugu euskal azentubideen sailkapenerako.

## 1. Isoglosa orokorrak

### 1.1. Azentu bereizgarria

Euskal eremuan, azentuaren aldetik egin dezakegun bereizkuntzarik oinarrikoenatariko bat azentu bereizgarria duten eta ez duten hizkeren artekoa da. Bai Euskal Herriko mendebaldean eta bai ekialdean, azentu bereizgarria duten hizkerak aurkitzen ditugu. Hizkera guzti hauetan, azentua erabiltzen da esannahiak bereizteko, neurri handian edo txikian. Aldiz, erdialdeko eskualde zabal batean (Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaiko alde handi batean) azentua ez da bereizgarria. Azentuaren bereizgarritasun fonologikoa (zentzu orokorrean) irizpide bezala erabiliz, lehendabiziko mapak erakusten duen eremu banaketa aurkitzen dugu.

Mapan ikusten den moduan, azentua bereizgarria da ia bizkaiera eta gipuzkeraren eremu osoan, euskara/gaztelaniaren mugan dauden hizkera batzuetan izan ezik.

Gure datuen arabera, ondoko hizkeretan, azentua ez da bereizgarria (hau da, hitz guztiak azentu patroï berberarekin ahoska daitezke) eta gehienetan bigarren silaban txertatzen da: Bizkaian, Bilboko Begoñako eta Bujako hizkerak, Zollo, Zaratamo, Arrigorriaga, Basauri, Orozko, Ubidea, Oleta eta Otxandio; Araban, Aramaio, Bilerle eta hilik edo hiltzeaz dauden Nafarrate eta Urrunagako hizkerak; eta Gipuzkoan, Arrasate eta Gatzaga. Arrakundiagan ere azentuzko bereizkuntzak oso marjinalak dira. Bizkai eta Gipuzkoako beste hizkera guztietan, azentua ez da silaba berean ezartzen hitz guztietan eta modu bateko edo besteko bereizketak edo oposaketak egiteko erabiltzen da.

Egoera honen aurrean, Altubek txikitan ikasi zuen euskara Arrasatekoa izatea nahiko esanguratsua da. Gauza jakina denez, Altubek (Azkueren kontra) euskaraz azentua ez dela bereizgarria aldarrikatu zuen: "las palabras de *igual número de sílabas* y colocadas en *la misma posición sintáctica*, se acentúan *idénticamente*." (Altube 1934: 343). Mapak erakusten digun moduan, Altubek deskribatu zuen egoera egia da Arrasateko hizkerarako, baina bestela oso berezia da mendebaldeko hizkeren eremuan.

Bizkai-Gipuzkoetan azentu bereizgarririk gabeko hizkerak euskararen hegoaldeko muga kotatuta daudela ikusita, pentsa dezakegu hizkera horietan azentu bereizgarria galdu egin dela; agian orain dela gutti.

Nafarroan, azentu bereizgarria hiru eskualdetan aurkitzen dugu: (a) ipar-mendebaldeko hizkeretan (Bidasoa ibai arroan, batez ere), (b) Imotzen eta Basaburuan eta (c) hil berri den Erronkariko hizkeran. Bidasoako hizkeretan eta Imotz/Basaburuan egiten diren azentuzko bereizketak desberdinak dira. Bidasoako hizkeretan, azentua bigarren silaban txertatzen da kasu normalean, baina erro markatu batzuekin lehen

silaban agertzen da. Imotz eta Basaburuko azentuera Ibarrek (1994) deskribatu berri du. Hizkera hauetan, Bidasoa arrokoetan ez bezala, singularra eta plural bereizten dira azentuaren bidez; kasu batzuetan, behintzat; adib. *semiiik*, ergativo singularra, vs. *semik*, plurala.

Azkenik, Erronkarin beste azentu mota bat aurkitzen dugu, Zubererarenari lotua.

Ultzama kasu berezi bat da. Hizkera honetan, hitz guztiak ez dira modu berean azentuatzen; adibidez, *órja* 'orea' eta *oríe* 'horia' hitzek kontraste bat erakusten dute, baina azentuzko bereizkuntza sartzen duena ez da morfologia edo marka lexikala, silaba egitura baizik: beste bokal baten aurrean erdiko bokalak irrastari bihurtzen dira /ore-a/ *órja*; aldiz, goiko bokalek ez dute silabatasuna galtzen ingurune berean, /ori-a/ *oríe* (Izagirre 1966, Ibarra 1994). Emandako bi adibideetan, azentua silaba berean ezartzen da; hots, azkenaurreko silaban, baina silaba egitura desberdina da bi hitzetan.

Nafarroa Garaiko zati handienez, berriz, ez dago azentuera kontrastibo edo bereizgarririk.

Lapurdin eta Nafarroa Beherean azentua ez omen da bereizgarria gaurregun. Antza denez, euskalki hauek, oro har, ez dute hitz mailako azenturik. Azentua esaldi mailan ezartzen da, dirudienez. Dena den, egoera honek berri xamarra izan behar du lurralde hauetako zenbait eskualdetan. Alde batetik, Leizarragak (Beskoitzen sortua) Zubereraren azentueratik gertu zegoen bat erabili zuen (Lafon 1935). Bestaldetik, Pierre d'Urtek (Donibane Lohizunen jaioa) gaurko Hondarribikoarekin zerikusia daukan azentubide bat erabili zuen (cf. Mitxelena 1972, Hualde eta Sagarzazu 1991). Gainera, zenbait herritan Ultzamako hizkerarako aipatu dugun bereizketa bera egiten da (Bonaparte 1869: xxix, oh. 1-2 [1991, I: 257], Schuchardt 1922: 6, Martinet 1981: 63, Gaminde eta Salaberria 1995); adib.: /suge-a/ *súgja*, /ogi-a/ *ogía*.

Iparraldeko (edo ekialdeko) beste euskalkiekin konparatuta, Zubereraren ezaugarri garbienetariko bat bere azentu bereizgarria da. Gavelek (1920, 1960), Larrasquetek (1928, 1934, 1939) eta Lafonek (1935, 1958) erakutsi zuten. Datu esanguratsu bezala aipa dezakegu Euskaltzaindiak berrargitaratu dituen Bonaparteren laguntzaileen lanen artean (Bonaparte 1991), azentu grafikoak testu batean bakarrik agertzen direla: Inchauspereen *Jesus-Kristen Ebanjelio Saindia Sen Mathiuren arauéra*-n, hain zuzen. Gure datuen arabera, azentua bereizgarria da Zubero osoan, ipar-mendebaldeko eskualde txiki batean izan ezik (gutxienez Pagolan eta Arüen, ikus Gaminde 1995a).

## 1.2. Singular eta pluralaren arteko bereizketa

Oso hedaturik dagoen azentu-bereizketa bat singular eta pluralaren artekoa da. Bigarren mapan ikus daitekeen bezala, singular/plural bereizketa Bizkai-Gipuzkoetako herri gehienetan, Imotz/Basaburuan, Zuberoan eta Erronkarin egiten da. Lehen eta bigarren mapak erkatzen baditugu, bi mapok oso antzekoak direla ikusten dugu. Horrek esan nahi du azentu bereizgarria duten hizkera gehienetan, singular eta pluralaren azentubideak desberdinak direla (kasu batzuetan, behinik behin). Nahiz eta azentu bereizgarria izan, singularra eta plurala ez dira inoiz bereizten azentuaren

aldetik honako herri eta eskualdeetan: Bizkaian, gutxienez ere Elorrion, Lezaman, Larrabetzun eta Euban; Gipuzkoako hegoaldeko partean, Oñatin, Legazpian, Zaldibian, Alegian eta Lizartzan; Gipuzkoako iparraldean, Zumaian, Elgoibarren eta Usurbilen. Lehen esan bezala, badirudi belaunaldi gazteetan bereizketa galtzen ari dela eskualde batzuetan. Donostiako eta Errearteriko gazteek ere ez dute bereizketa hau egiten eta Azpeitikoek zalantza askorekin bakarrik. Ziur asko, beste herri askotan egoera berberarekin topatuko gara (agian Usurbilen, esate baterako). Herri hauetan singular eta pluralaren artean azentuzko bereizketarik ez egitea, azken belaunaldiotan gertatu den ohiko azentu sistema osoaren galera edo berreregituraketaren ondorioa da.

Oñatin eta Gipuzkoako hegoaldeko beste hizkera batzuetan (Legazpia, Zaldibia, Alegia), aldiz, singular eta pluralaren arteko bereizketarik eza zaharragoa da. Guk elkarrizketaturako hitzun gazteek ziurtasun handia erakusten dute azentu kontuetan eta azentuaren aldetik markatuak eta markatuak ez diren hitzak zalantzarik gabe bereizten dituzte, nahiz eta singularra eta plurala modu berean azentuatu. Gainera, Izagirrerren (1970) lanak frogatzen du Oñatin egoera hau ez dela belaunaldi gazteetan gertatu den berrikuntza bat. Mitxelenak (1976) ikusi zuenez, Izagirrerren Oñatiko hiztegia aztertuz, argi dago Oñatin hitzak bi taldetan banatzen direla azentuaren ikuspegitik: hitz gehienek azentua bigarren silaban daramate, baina batzuek (hitz markatuak) lehen silaban daukate. Bestaldetik, hitz guztiak modu berean azentuatzen dira singularrean eta pluralean. Gure berriemaile gazteek funtsean azentubide berbera erabiltzen dute (ikus, baita, Erostarbe 1994). Eskualde honetan, beraz, (Azpeitian, Donostian edo Errearterian ez bezala) azentubidea ez da aldatu azken belaunaldiotan bertako hizkera ondo menperatzen dutenen artean. Singularra eta plurala ez dira bereizten ohiko azentuaren.

Berriro ere lehen bi mapak konparatuz, goinafarreraren eremuan aurkitzen dugu beste diferentzia bat. Bidasoa haraneko hizkeretan (Hondarribitik Labaieneraino), azentua bereizgarria izan arren, singularra eta plurala ez dira bereizten azentuaren bidez.

Singular eta pluralaren arteko azentuzko bereizketa hain hedatuta egotea Euskal Herrian zehar oso fenomeno nabarmena da. Hala eta guztiz, aipatu behar da bereizkuntza hau oso modu desberdinetan egiten dela bigarren mapan marraztutako hiru eskualdeetan. Ez dirudi sg/pl bereizketak iturri historiko berbera duenik hiru eskualdeotan.

Zubereraz azentua normalean azkenaurreko silaban txertatzen da. Pluralean, aldiz, absolutiboan izan ezik, azken silaban doa. Adib.: *gtzun*, *gizúna*, *gizúnak* (erg sg nahiz abs pl), baina *gizunék* (erg pl), *gizunér* (dat pl), etab. Erronkarieraz ere, antzeko modu batean, *gízon*, *gízona*, *gízonak* baina *gizonék*, *gizonér* esaten zen.

Nafarroako Imotz eta Basaburuko hizkeretan, Ibarrek (1994) erakutsi duenez, singularrean azentu nagusia lehen edo bigarren silaban doa; pluralean, aldiz, pluralaren atzizkia daukan silaban (hau da, hitzaren azken edo azkenaurreko silaban). Adib.: *sémiž*, *semík*.

Bizkaiera eta Gipuzkeraren eremuan, bereizketa hau egiten den leku guztietan, pluralean azentua singularrean baino ezkeralderago doa (Zuberoa/Erronkarietan eta Imotz/Basaburuetan ez bezala). Hau hola izanik ere, mendebaldeko hizkeretan badaude diferentzia nabariak pluralaren azentueran. Mendebaldeko euskalkiei bereziki dagozkien fenomeno batzuk hurrengo atalean aztertuko ditugu. Fenomeno hauen artean, pluralaren azentuera kontsideratuko dugu xehetasun gehiagorekin.

## 2. Azentu bereizgarria mendebaldeko euskalkietan

### 2.1. Azentu ezarketa arau orokorra

Mendebaldeko euskalkiei begiratzen badiegu, oinarrizko bereizkuntza bat egin dezakegu azentu ezarketa arauaren norabidea kontuan hartuz. Hirugarren mapan, mendebaldeko euskalkietan aurkitzen diren azentu arau nagusien banaketa erakusten da. Bizkaiko iparraldean, Getxotik Lekeitioraino, azentua perpaus edo talde fonologikoaren azken silaban txertatzen da azentu lexikalik ez dagoenean (1)]; hau da taldearen hitz guztiak markatugabeak direnean. Larramendik (1729) deskribatu zuen azentu sisteman ere azentua azken silaban txertatzen da kasu orokor edo ezmarkatuan (cf. Hualde 1991b). Larramendiren lekukotasuna aintzakotzat hartuz, ondoriozta dezakegu azentuera honek behin batean orain baino zabalera geografiko handiagoa zeukala.

Beste eskualde batzutan azentua azkenaurreko silaban ezartzen da kasu orokorrean (2)]. Patroi hau Ondarroan eta Markinaldean (Markina, Etxebarria, Munitibar, Mallabia) aurkitzen dugu; baita Gipuzkoako mendebalde-erdialdean (Eibar, Bergara, Antzuola, Azkoitia, Azpeitia, Errezil) eta Zeberion eta Arratian ere.

Azkenik, eskualde zabal batean, azentua ezkeraldetik ezartzen da eta bigarren silaban txertatzen da kasu markatugabeen ([2]). Arau hau Nafarroako Bidasoako haraneko hizkeretan, Gipuzkoako zati handi batean eta Bizkaiko hegoaldean eta Araban aurkitzen dugu. Ziur asko eredu hau askoz zaharragoa da leku batzuetan beste batzuetan baino.

### 2.2. Doinu azentuzko eredu

Bizkaiko iparraldeko hizkeretan, bai azentu ezmarkatua perpaus fonologikoaren azken silaban ezartzen duten hizkeretan eta baita Markinaldekoetan ere, azentuak gauzatze fonetiko berezi bat dauka (gaztelania edo Europako hizkuntza gehienekin konparatuta). Eskualde honetan azentua tonuaren bidez gauzatzen da. Hitz edo hitz andana ezmarkatuetan goiko tonu bat hedatzen da bigarren silabatik azken silabaraino, edo azkenaurreko silabaraino Markinaldeko ereduan. Askotan silaba guztiak tonu maila berdintsuan ahoskatzen dira (cf. Azkue 1923, 1931-32, Basterrechea 1974-75, Hualde 1989, 1991a, Gaminde 1995b). Hitz markatuetan, aldiz, tonu jaitsiera nabarmen bat dago silaba azentudunaren ondoren. Era eskematiko batean, H\*L melodia (H = goiko tonua, L = beheko tonua) azentu lexikala daraman silabarekin asoziatzen da (lehen azentu lexikalarekin, hitzak bat baino gehiago badauzka) eta azentu lexikalik ez badago talde fonologikoaren azken silabarekin (azkenaurreko silabarekin Markinaldeko hizkeretan):



Baina bada beste aukera bat. Bostgarren mapan erakusten den bezala, Ondarroan, alde batetik, eta Zeberio eta Arratian beste aldetik, pluralean *gizónak* dugu. Orain, hirugarren mapan ikusten dugu hizkera hauetan arau orokorra 2] dela. Orduan, nola bereizten dira singularra eta plurala hizkera hauetan? Hau nola den ulertzeko, singularraren eta pluralaren azentuak desberdinak direla konturatu behar dugu. Nolabait esateko, pluralaren azentua fixoa da, eta singularrarena, aldiz, mugikorra. Ondarroan, esate baterako, *gixóna* eta *gixónak* ditugu intonaziozko eten baten aurrean. Baina, lehen aipatu bezala, singularrean azkenurreko silaban agertzen den azentua talde fonologikoari dagokio. Talde fonologikoak hitz gehiago badauzka, azentua taldearen azkenurreko silabara mugitzen da. Adibidez, aditz trinkoa sartu ohi da galdegaigunean dagoen izenaren talde prosodikoan (cf. Hualde, Elordieta eta Elordieta 1993): *gixoná ra*, *gixona rátor*. Pluralaren azentua, aldiz, hitzari dagokio; hitzaren azkenurreko silaban agertzen da eta handik ez da mugitzen: *gixóna(k) tis*. Orduan bi azentuak azkenurreko silaban ezartzen dira, baina eremu desberdinetan: singularrarena talde fonologikoaren azkenurreko silaban eta pluralarena hitzaren azkenurrekoan. Modu honetan sg/pl bereizketa mantentzen da, nahiz eta eten baten aurrean neutzalizaturik egon. Zeberion eta Arratian bereizketa antzeko era batean egiten da (ikus Hualde 1992).

Pluralaren kasua aipagarriena bada ere, beste atzizki asko markatuak dira eta horiekin ere antzeko arazoak aurkitzen ditugu. Atzizki markatu (azentuatzaile) eta markatugabeen arteko bereizkuntza daukaten hizkeren artean adostasun handia aurkitzen dugu atzizkien sailkapenean. Baina adostasuna ez da inoiz osoa eta fenomeno bakoitzaren hedadura ezagurtea interesgarria izan daiteke. Deklinabidearen atzizkien artean, pluralaren atzizkiez gain, sozietiboa eta ablatiboa (/tik/) azentuatzaileak ohi dira. Ablatiboa, adibidez, kontsideratzen badugu, Bizkaiko iparraldean (Getxo, Gernikaldea, Lekeitio, Ondarroa, etab.) eta Zeberio/Arratian markatua da (adib. *méndittik/mendiré*). Markinaldean, pluralak bezala, bi silaba atzerago ezartzen du azentua: *méndittik*. Azeptian eta inguruko hizkeretan, aldiz, ezmarkatua da. Aditz partizipioen atzizkiak eta eratorpen atzizkiak ere kontuan hartu behar dira azentu ezaugarrien aldetik. Gai hau hurrengo lan baterako utzi beharko dugu.

#### 2.4. Erro markatuak (Bizkaiera)

Azentua bereizgarria den leku guztietan, Basaburuan/Imotzen izan ezik antza denez, badira azentuera berezi bat erakusten duten hitz-erroak. Erro hauei erro markatu deituko diegu, euskal azentuaren ikerketan ohiko bihurtu den terminologia erabiliz (cf. Jacobsen 1972, 1975). "Markatu" adjektiboaz, noski, gauza desberdinak adierazten ditugu azentu sistema desberdinetan:

a/ Zubereran azentua normalean hitzaren azkenurreko silaban txertatzen da; hitz markatuetan, aldiz, azken silaban; adib.: *lékhü*, *lekhía* [-m] vs. *ardü*, *ardüa* [+m].

b/ Azentua normalean bigarren silaban txertatzen den hizkeretan, erro markatuek lehendabiziko silaban hartzen dute; adib. *burúa* [-m] vs. *básua* ('edalontzia') [+m].

c/ Azentua kasu orokorrean talde fonologiko bukaeratik ezartzen den sistemetan,



erro markatuak azentu lexikala (fixoa) daukatenak dira; adib.: /iturri/ [-m], *lau iturri*, *iturriré* vs. /belárrri/ [+m] *lau belárrri*, *belárrrive*.<sup>3</sup> Mendebaldeko hizkeretan, erro markatua izatearen ondorio bat sg/pl eta atzizkiek sartutako beste azentu bereizketak galtzea da. Erro hauekin singular eta pluralaren azentuerak berdinak dira beti.

Zuberera/Erronkaria alde batera utziz, azentu bereizgarria duten beste hizkera guztietan (Bizkaian, Gipuzkoan eta Bidasoa haranean) adostasun harrigarria aurkitzen dugu markatutzat hartzen diren erroetan.

Erro markatuen artean mailegu batzuk aurkitzen ditugu beti. Erro markatuak dituzten mendebaldeko hizkera guztietan (Labaien edo Hondarribitik Getxo edo Zeberioaraino) /básu/ 'edalontzia' erro markatua da. Hemen hizkeren arteko adostasuna osoa da (gure datuak osoak diren neurrian). Erroak markatu eta ezmarkatuen artean banatzen badira hizkera jakin batean, /básu/ 'edalontzia' markatuen sailean egongo da beti (Bizkaieraren eremuko datuak 6. mapan erakusten dira). Bat-etortze hori euskal jatorrizko hitz batzuekin ere aurkitzen dugu. Adibide bat, /béste/ hitza da. Aztertu ditugun hizkera guztietan markatua da (ikus 7. mapa). Adostasun bera /áurre/ eta /átze/ hitzekin ere aurkitzen da, adibidez. Erro markatuei buruzko mapak bizkaieraren eremuari dagozkio, gure datuak osoagoak baitira eskualde honetarako. Dena den, orain arte aztertu ditugun bizkaieraz kanpoko hizkeretan ere egoera berbera aurkitzen dugu hitz hauei dagokienez.

Beste kasu batzutan, adostasuna, erabat osoa ez izan arren, nahiko orokorra da. /léku/ erroaren kasuan, salbuespen bakar bat aurkitu dugu: Oñati (ikus 8. mapa). Aztertu ditugun beste hizkera guztietan markatuen taldean sartzen da erro hau. /egi(a)/ hitzak antzeko banaketa bat erakusten du: markatua da ia leku guztietan, baina Oñatin markatugabea da (ikus 9. mapa).

Kontrako kasua ere aurkitzen dugu. Erro batzuk eskualde ttipi batzuetan besterik ez dira markatuak. /seme/ erroa markatu bezala agertzen zaigu Gipuzkoako kostaldeko zati batean (Zumaia, Zarautz, Orío), Gipuzkoako hegoaldean (Oñati, Legazpia, Zaldibia, Beasain) eta baita Bizkaiko erdialdeko hizkera batzuetan ere (Larrabetzu, Iurreta). Baina aztertutako beste hizkera guztietan markatugabea da (ikus 10. mapa). Hemen isoglosa garbirik ez dago eta aurkitzen dugun banaketaren azalpena ez da erraza.

Esan bezala, [2 araua daukaten hizkeretan, erro markatuek lehendabiziko silaban hartzen dute azentua. Aldiz, 1] edo 2] azentuera orokorra daukatenetan posibilitate gehiago daude bi silaba baino gehiagoko erroekin. Normalean, azken silaban ezezik, beste edozein silabatan izan dezakegu azentu lexikala. Erroa hirusilabaduna bada, azentu lexikala lehendabiziko silaban (adib. /dénpora/) edo bigarreanean (adib. /doméka/) izan daiteke. Kasu batzuetan etimologia kontuan hartuz espero genukeen silaban aurkitzen dugu azentua, emandako adibideetan bezala (< lat. *témpora*, *domínica*); baina azentu aldaketak egon dira. Askotan, azentua silaba bat ezkerraldera (cf.

(3) Lekeition eta Ondarroan azentu lexikalak hitzaren azkenaurreko silabara mugitzen dira. Adib.: Lek: [-m] *lau eskú*, *eskuá*, *eskurá*, *eskuuntzakó* vs. [+m] *léku*, *lekúá*, *lekúva*, *lekuntzákó* (cf. Hualde 1989, 1990, 1991a, Hualde, Elordieta eta Elordieta 1995).

/tómate/, Getxon, adibidez) edo eskuinaldera (cf. /latígo/, Arratzun) mugitu da, baina erregularitasun osorik gabe, antza denez. Gauzak horrela, hitz askorekin desadostasunak aurkitzen ditugu azentuaren kokagunean. Adibide bat, *lengusu* hitza da. 11. mapan ikusten denez, Bizkaiko ipar-ekialdean (Bermeo, Elantxobe, Arratzu, Arteaga, Muxika, Markina) hitz hau markatua da eta bigarren silaban darama azentua (Ondarroa eta Lekeitiorako, ikus 2. oharra). Hedatuena dagoen azentuera, hala ere, /lengusu/ da.

*Lengusuz* gain, beste hiru hirusilabadun markatu aztertu ditugu: *belarri*, *oilasko* eta *bazkari*. Hitz bakoitzak banaketa desberdin bat du. Dena den, eskualde batzuetan joera garbiak ikus ditzakegu. Getxo, Gatika eta inguruko hizkeretan, hitz markatu hauekin joera nagusia azentua lehen silaban ipintzea da: *lengusu*, *bélarri*, *óllosko*, *béskari*. Gernikaldean, aldiz, hitz hauetan azentua bigarren silaban agertzen da komunzki: *lengúsue*, *belárriže*, *ollásko*, *baskáriže*. Zeberion eta Arratian, ez dugu joera garbirik ikusten. Agian, eskualde honetan azentuak, neurri handiago batean, haien kokagune etimologikoan mantendu dira, ezkerralderanzko edo eskuinalderanzko lerraketarik pairatu gabe. Noski, datu gehiago ezagutu gabe, hau espekulazio hutsa da. Adibide gutti hauen kasuan, behintzat, badirudi etimologia eta Zeberion eta Arratian aurkitzen dugun azentuera bat datozela. Hualde (1993a) lanean proposatzen den bezala, aintzineko mendebaldeko euskaraz azentua lehen morfemaren azken silaban txertatzen bazen, *lengusu* <\*lebén-gusu eta *ollásko* <\*oilá-sko espero genuke, Arratian aurkitzen den azentueraz, hain zuzen. *Belarri* hitzaren etimologia zein den ez dago hain garbi, baina *belaarri* dokumentatuta dagoenez gero (Oñatiko hizkeran, cf. Izagirre 1970 eta bizkaiera zaharrean, cf. Mitxelena 1977: 589), badirudi \**belá-arri* > *belárri* proposa dezakegula. *Bazkari* adibidearen kasuan, Zeberio eta Arratiako hizkerak ez datoz bat. Hitz honen forma zaharrago bat *barazkari* da, baina haren egitura morfemikoa ez dago oso garbi (cf. Arbelaz 1978). Beste adibide bat emateko, *intzaur* hitza konposatu zaharra da eta markatua da hizkera askotan.

Aipatutako erro markatuei buruzko bizkaieraren datuak hurrengo atalean biltzen ditugu tauletan, gauzak agian modu argiago batean erakusteko (*seme* hitza ez dugu ematen tauletan, oso herri guttitan baita markatua bizkaieraren eremuan). Taula hauetan, hizkerak azentuzko ezaugarrien arabera sailkatzen ditugu.

### 3. Aztertutako erro markatuen banaketa bizkaieraren eremuan

#### 3.1. Gernika/Getxoko eredia (Bizkaiko iparraldea)

##### *Ezaugarriak:*

Doinu-azentua (tonu hedapena)

Arau nagusia: azentu ezmarkatua perpaus fonologikoaren azken silaban ezartzen da, 1]; adib.: *gixon ederraná* (= *gixón édérráná*) 'gizon ederrarena', *gixoná*, *gixona dá*, *gixonarí*.

Azentu lexikala (hitz markatuak): lehen azentu lexikalak erabakitzen du azentuaren kokagunea; adib. /bílbo-'tarr-'ak/ *bílbottarrak*; /gixon-'ari/ *gixónari* 'gizonei'; /léku-'ari/ *lékueri* 'lekuei'.

	lekua	intzaurra	basua	lengusua	bazkaria
Getxo	léku	íntxorra	básu	légusu	báskari
Sopela	léku	íntxurre	básu	légusu	béskari
Gatika	léku	íntxurre	básu	légusu	béskari
Urduliz	léku	íntxurre	básu	légusu	béskari
Mungia	lékue	íntxurre	básue	légusue	béskarie
Fruiz	lékue	íntxurre	básue	légusue	béskariže
Meñaka	lékue	íntxurre	básue	légusue	béskariže
Larrauri	lékue	íntxaurre	básue	légusue	béskariže
Errigoiti	lékue	íntxurre	básue	légusue	béskariže
Bermeo <sup>4</sup>	lékue	íntxorra	básue	lengúsue	-
Murueta	lékue	íntxaurre	básue	légusue	báskariže
Muxika	lékue	íntxurre	básue	lengúsue	béskariže
Arratzu	lékue	íntxurre	básoa	lengúsue	báskariže
Arteaga	lékue	íntxorra	básue	lengúsue	béskariže
Elantxo	léku	íntxaurre	básu	lengósu	báskariže
Nabarriz	lékue	íntxaurre	básue	légusue	báskariže

	oilaskoa	egia	belarria	bestea	aurrea
Getxo	óllasko	égi	bélarri	béste	áurre
Sopela	óllosko	égi	bélarri	béste	áurre
Gatika	óllosko	égi	bélarri	béste	áurre
Urduliz	óllosko	égi	bélarri	béste	áurre
Mungia	ólloskoa	égie	bélarrie	béstea	áurrea
Fruiz	ólloskoa	égize	bélarriže	béstie	áurrie
Meñaka	ólloskoa	égize	bélarriže	béstia	áurria
Larrauri	ólloskoa	égize	bélarriže	béstie	áurrie
Errigoiti	ollóskoia	égize	belárrize	béstie	éurrie
Bermeo <sup>4</sup>	-	égize	belárrize	béstie	áurrie
Murueta	olláskue	égize	belárrize	béstie	éurrie
Muxika	olláskoa	égize	belárrize	béstie	áurrie
Arratzu	olláskoa	égize	belárrize	béstie	éurrie
Arteaga	olláskue	égize	belárrize	béstie	áurrie
Elantxo	ollásku	égize	belárrize	bésti	áurri
Nabarriz	olláskue	égize	bélarriže	béstie	áurrie

### 3.2. Markinaldeko eredua

*Ezaugarriak:*

Doinu azentua

Arau nagusia: azentu ezmarkatua perpaus fonologikoaren azkenurreko silaban ezartzen da, 2]; adib.: *gixóna*, *gixon ederra*, *gixon ederrána*, *gixoná da*.

Azentu lexikala (hitz markatuak): lehen azentu lexikalak erabakitzen du azentuaren kokagunea; adib.: *bílbotarrak*.

Gizabu	lékue	intxáurre	básue	lengúsue	báskariže
Munit	léku	íntxaurre	básu	lengosu	báskaiže
Aulesti	léku	íntxaurre	básu	lengosu	báskariže
Markin	lékue	intxáurre	básue	lengúsue	báskarixe
Etxebar	lékue	íntxaurre	básue	lengúsue [-m]	báskarixe
Berriatu	léku	íntxaurre	básu	lengúsu	báskarixe

(4) /bazkari/ eta /oilasko/ hitzak ez dira erabiltzen Bermeon. Haien ordez, *eguerdižé* eta *ollué* erabiltzen dira. Dena den, Gidor Bilboak hauxe esaten digu: "esatekotan, *báskariže* eta *olláskue*".

Gizabu	olláskue	égize [-m]	belarríze[-m]	béste	áurrie
Munit	ollásku	égize	bélarrize	bésti	áurri
Aulesti	ollásku	égize	bélarrize	bésti	áurri
Markin	olláskue	égixe	belarríxe [-m]	béste	áurrie
Etxebar	olláskue	égixe	belárrixe	béste	áurrie
Berriatu	ollásku	égixe	belárrixe	bésti	áurri

### 3.3. Lekeitio

*Ezaugarriak:*

Doinu azentua

Arau nagusia: azentu ezmarkatua perpaus fonologikoaren azken silaban ezartzen da, 1]; adib.: *gixoná, gixon ederrá, gixon ederrená, gixona dá.*

Azentu lexikala (hitz markatuak): azentu lexikala hitzaren azkenaurreko silaban kokatzen da; adib.: *bilbotárrak; lau belárrri, belarríza, belarríra, belarrízetára.*

Lekeit	lekúa (cf. burúa)	intxáurra	basúa	lengusúa	baskaríza
Lekeit	ollaskúa	egíza	belarríza	bestía	aurría

### 3.4. Ondarroa

*Ezaugarriak:*

Doinu azentua

Arau nagusia: azentu ezmarkatua perpaus fonologikoaren azkenaurreko silaban ezartzen da, 2] (= Markinaldean); adib.: *gixóna, gixoná ra, gixon edérra, gixon ederrá ra, gixon ederrána, gixon ederraná ra* (cf. pl. *gixon ederrána ra*). Baina: /buru-a/ *burú, /abade-a/ abarí.*

Azentu lexikala (hitz markatuak): azentu lexikala hitzaren azkenaurreko silaban kokatzen da (= Lekeitio); adib.: *bilbotárrak, bilbotárra(k) tis, gixóna(k) tis.*

Ondarroa	lékure	intxáurre ra	básu re	lengúsu re	baskáixe ra
Ondarroa	ollásku re	egixe ra	belarríxe ra	bésti re	áurri re

cf. [-m] *burú re, alabí re, etxí re, mendixé ra, barbariñé ra.*

### 3.5. Arratia

*Ezaugarriak* (cf. Hualde 1992):

Erro markatugabeen mugagabea:

azentua azken silaban txertatzen da: *lau mamarró dire, lau gixon edér dire.*

Erro markatugabeen singularra:

a/ erroa silababakarra edo bisilabaduna bada, azentua (lehen) mugatzailearen gainean txertatzen da: *gixoná da, semeá da, lurré da, gixonári, gixonánari* 'gizonarenari'.

b/ erroa luzeagoa bada, azentua erroaren azken silaban txertatzen da: *mamarróa da, mamarróari, mamarróanari* 'mamarroarenari'.

Erro markatugabeen plurala:

azentua singularrean baino silaba bat ezkeralderago txertatzen da: *gixónak dire, semeák dire, lúrrek dire, gixónari, gixónanari, mamárrroak dire, mamárrroari, mamárrroanari.*

Azentu oxitonoa paroxitono bihurtzen da eten baten aurrean: *gixoná da* -> *gixóna, lau mamarró díre* -> *lau mamárro*.

Galdaka	lékue	íntxurre	básue	légusue	beskaríe
Bedia	lékue	-	básue	légusue	beskaríe
Zeberio	lékue	íntxúrre [+m]	básue	légusue	báskarie
Igorre	lékue	íntxúrre [+m]	básue	légusue	báskarie
Artea	lékue	íntxúrre [+m]	básue	légusue	báskarie
Dima	lékue	íntxúrre [+m]	básue	légusue	báskarie
Zeanuri	lékue	íntxúrre [+m]	básoa	lénkusue	báskarie

Galdaka	ulláskoa	égié	belárrie	béstea	éurrea
Bedia	olláskoa	égié	belárrie	béstea	éurrea
Zeberio	olláskoa	égié	belárrie	béstea	áurrea
Igorre	olláskoa	égié	belárrie	béstea	éurre a
Artea	olláskoa	égié	belárrie	béstea	éurre a
Dima	olláskoa	égié	belárrie	béstea	áurrea
Zeanuri	olláskoa	égié	belárrie	béstea	áurrea

### 3.6. Txorierriko eredua:

*Ezaugarriak:*

Erro markatugabeen singularra:

a/ erroa silababakarra edo bisilabaduna bada (Derion ez), azentua mugatzailearen gainean txertatzen da: *sarrá, oná, sagarrá, píperá*.

b/ erroa luzeagoa bada (Derion bisilabadunak ere bai), azentua erroaren azken silaban txertatzen da: *alargúne, alabéa*

Derion azentu oxitonoa paroxitono bihurtzen da eten baten aurrean: *txarrá da* -> *txárra, oná da* -> *óna*.

Erandio	léku	íntxurre	básu	légusu	béskari
Loiu	léku	íntxurre	básu	légusu	béskari
Derio	lékue	íntxurre	básue	légusue	béskarie

Erandio	óllasko	égi	belárrie	béste	áurre
Loiu	óllasko	égi	belárrie	béste	áurre
Derio	ollóskoa	égié	belárrie	béstea	áurre

### 3.7. Bergarako eredua

*Ezaugarriak* (cf. Hualde 1993b):

Arau nagusia: azentu ezmarkatua perpaus fonologikoaren azkenaurreko silaban txertatzen da, 2]. Adib.: *Bergarakúa*.

Hitz markatugabeen pluralean, azentua singularrean baino silaba bat atzerago agertzen da normalean; hau da pluralaren morfema baino bi silaba ezkeralderago (behar bezainbeste silaba baldin badira); adib.: *bi emakúme, emakumía, emakúmiak* (Antzuola, Izagirre 1968); *lau ieltséro, ieltserúa, ieltséruak* (Bergara); *dantzáríxak* (sg), *dantzáríxak* (Eibar, Laspiur 1979).<sup>5</sup>

(5) Eibarren, normalean, azentua ez da atzeratzen oinarri bisilabadunen pluralean: *zerúak, uliak, gisónak, mutíllak* (baina *dantzáríxak, konzéjalak*). Dena den, *gísonak* tipokoak ere entzuten dira oinarri bisilabadun batzuekin, baina ez dira besteak bezain ohikoak Eibarren, Koldo Zuazok eta Antton Narbaizak jakinerazten digutenez.

Azentu lexikala (hitz markatuak): lehen azentu lexikalak erabakitzen du azentuaren kokagunea; adib.: /álkaze-”ak/ *álkaziak*.

Bergara	tókixa	íntxaurra	básua	légusua	báskaixa
Antzuo	lékua	íntxaurra	básua	légusua	báskaixa
Eibar	lékua	íntxaurra	básua	légusua	báskarixa

Bergara	óllaskua	égixa	bélarrixa	béstia	áurria
Antzuo	óllaskua	égixa	bélarrixa	béstia	áurria
Eibar	óllaskua	égixa	bélarrixa	béstia	áurria

### 3.8. Lezama/Durango

*Ezaugarriak:*

Eskuarki azentua bigarren silaban txertatzen da, [2.

Azentu lexikala (markatua) lehen silaban txertatzen da gehienetan, baina erro markatu batzuk hirugarren silaban jasotzen dute azentua; adib.: *txakolíñe* (Euba, Abadiño, Larrabetzu)

sg/pl bereizketaren aztarnak

Euba	lékue	íntxáurre [-m]	básue	légusue	báskarize
Abadiño	lékue	íntxaurre	básue	légusue	báskaiže
Ermua	lékua	íntxorra	básua	légosua	báskarixa
Iurreta	lékue	íntxaurre	básue	lengósue	béskáriže
Berriz	lékue	íntxaurre	básue	lengósue	béskaiže
Elorrio	lékua	íntxaurra	básua	légosua	béskaiža
Lezama	lékue	íntxurre	básue	légusue	báskarie
Larrabet	lékue	íntxurre	básue	légusue	béskarie

Euba	olláskue [-m]	égixe	belárrixe [-m]	béstie	áurrie
Abadiño	olláskue [-m]	égixe	belárrixe [-m]	béstie	áurrie
Ermua	óllaskua	égixa	bélarrixa	béstia	áurria
Iurreta	olláskue	égixe	belárrixe	béstie	áurrie
Berriz	olláskue	égixe	belárrixe	béstie	áurrie
Elorrio	olláskua [-m]	égixa	bélarrixa	béstia	áurria
Lezama	ollóscoa [-m]	égie	belárrie [-m]	béstea	áurrea
Larrabet	ollóscoa [-m]	égie	belárrie [-m]	béstea	áurria

### 3.9. Oñati

*Ezaugarriak (cf. Hualde 1995)*

Eskuarki azentua bigarren silaban txertatzen da, [2

Azentua lehen silaban txertatzen da hurrengo kasuetan:

a/ erroa silababakarra denean (azentu eremua erroa da); adib.: *lúrrera*, *báltzena*.

b/ hitza bisilabaduna denean (azentua ezin daiteke txerta hitzaren azken silaban); adib.: *babía*, *lau bába*.

c/ erroa markatua denean

sg = pl

Oñati	lekú[a] [-m]	íntxáurra [-m]	básua	lengúsua [-m]	báskaixa
Elgoibar	lékua	íntxaurra	básua	légusua	baskáixa [-m]

Oñati	olláskua [-m]	egíxa	beláarrixa [-m]	béstia	áurria
Elgoibar	olláskua [-m]	égixa	belárrixa [-m]	béstia	áurria

### 3.10. Azentu bereizgarririk gabeko hizkerak

#### Ezaugarriak:



Hitz guztiak modu berean azentuatzen dira. Azentua normalean bigarren silaban txertatzen da, [2. Dena den, esaldiaren testuinguruaren arabera nagusitasun prosodiko azken silaban edo beste silaba batean egon daiteke. Hauei Altuberen deskribapena aplikatzen zaie zuzenean; hots, “las palabras de *igual número de sílabas* y colocadas en *la misma posición sintáctica*, se acentuan *idénticamente*.”

Begoña	lekúe	untxúrre	basúe	lengúsue	beskáríze
Basauri	lekúe	intxúrre	basúe	lenkósue	baskáríze
Zarat	lekúe	intxúrre	basúe	lengúsue	baskáríze
Zollo	lekúe	intxáurre	basúe	lengúsue	baskáríze
Arrank	lekúe	intxáurre	basúe	primóa	baskárie
Orozko	lekúe	intxáurre	basúe	lengósue	baskárie
Ubidea	lekúe	intxáurre	basúe	lengúsue	baskáize
Otxand	lekúe	intxáurre	basúe	lenkúsue	baskáize
Oleta	lekúe	intxáurre	basúe	lenkúsue	baskáize
Bilerle	lekúe	intxáurre	basúe	lenkúsue	baskáríze
Aramai	lekúe	intxáurre	basúe	lengúsue	baskáixe
Arrasat	lekúe	intxáurre	basúe	primúe	baskáixe
Gatzaga	lekúa	intxáurra	basúa	primúa	baskáixa

Begoña	olláskoa	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Basauri	olláskoa	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Zarat	olláskoa	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Zollo	olláskoa	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Arrank	olláskoa	egíe	belárrie	bestéa	aurréa
Orozko	olláskoa	egíe	belárrie	bestéa	aurréa
Ubidea	olláskue	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Otxand	olláskue	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Oleta	ulláskue	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Bilerle	olláskue	egíze	belárrize	bestíe	aurríe
Aramai	olláskue	egíxe	belárrixe	bestíe	aurríe
Arrasat	olláskue	egíxe	belárrixe	bestíe	aurríe
Gatzaga	olláskua	egíxa	belárrixa	bestía	aurría

### 4. Zenbait ondorio

Sailkapen batzuetan, oso zabalera handia eman zaie zenbait azentu ereduri. Mitxelenak (1958 [1988:221]), gai honi buruz argitaratu zuen lehen artikuluan, mendebalde-erdialdeko azentu eredu bat onartzen du eta bere hedaduraz hauxe esaten digu: “Le type accentuel ‘central-occidental’ comprend, à ce qu’il semble, les dialectes biscayen et guipuzcoan, le labourdin, une partie du domaine haut-navarrais et quelques parlens bas-navarrais.” Eredu hau definitzeko erabilitako irizpidei buruz, berriz, hauxe dio: “On ne peut pas évidemment parler d’uniformité. Ce qui est commun est plutôt le fait que les différences d’intensité ou d’acuité sont faibles et peu perceptibles et qu’elles tendent à s’effacer dans la phrase.” Sailkapen berriago batean, Mitxelenak (1972 [1987]) mendebalde-erdialdeko azentu ereduari zabalera murriztago bat ematen dio: “most of Guipuzcoa, a considerable portion of Biscay, extending to the West as far as Bilbao, and some, but by no means all, Navarrese regions bordering on Guipuzcoa”. Orain, irizpidea hitz markatu eta markatuga-












sg. = pl.  
 △ gizonak  
 ^ gizonak Eibarren bi formak erabiltzen dira, gisónak gisonak baino ohikoagoa izanik.  
 x sg. = pl Gernikan zaharrek gisonak erabiltzen dute eta gazteagoek gixónak.



6. mapa (edalongtzia)  
 △ básua [+m]  
 ■ basúa [+m]  
 x ez dago erro markaturik  
 Lekeitio: basúa [+m] cf. basúa [-m] (mendia) Legutio = x



7. mapa  
 Δ béstea [+m]  
 x ez dago erro markaturik  
 Lekeition bestía [+m]




8. mapa  
 Δ lekúa [+m]  
 ◄ lekúa [-m]  
 x ez dago erro markaturik  
 Lekeito: lekúa [+m], cf. burua [-m]

9. mapa

△ égi(a) [+m]

◆ égi(a) [-m]

x ez dago erro mar





10. mapa

◆ sémea [+m]

△ semea [-m]

x ez dago erro markaturik





bekoen arteko bereizkuntza da (eta bereizkuntza honen gautzte fonetiko): “Nouns fall, as far as the accentual pattern goes, into two classes: words belonging to the unmarked class, ... characterized by a sustained accent, and words with a marked accent, signaled by a falling contour” (1987: 236).

Txillardegik (1984), berriz, eta azentua ezkeraldetik ala eskuinaldetik ezartzen den irizpide bezala erabiliz, Euskalherri osoan bi azentu eredu besterik ez ditu proposatzen. Bere mendebaldeko sailean Bizkaiera, Gipuzkeraz, Bidasoa aldeko Goianafarrera, Lapurtera eta Behenafarreraren zati bat sartzen ditu. Esaten duenez: “beronen azentu-joera nagusia hau izango litzateke: azentu-unitatearen ezkeraldetik hasi, eta azentua (+2) silaban jartzea” (17). Gelditzen diren hizkera guztiak, bere ekialdeko ereduan sartzen ditu.

Artikulu honetan eskaintzen ditugun mapak kontuan hartuz, argi dago Txillardegiren irizpidea erabiliz lortuko genukeen zatiketa geografikoa nahiko desberdina izango litzatekeela. Berezik, “azentua bigarren silaban” arau nagusizat erabiltzen duten hizkeren eremua askoz estuagoa da.

Mitxelenak 1958ko artikuluan mendebalde-ekialdeko eredia definitzeko erabiltzen duen irizpidea (silaba toniko eta atonikoen artean diferentzia txikia egotea) nahikoa irristakorra da. Oso zaila da, irizpide honen arabera, banaketa ondo eginda dagoen jakitea. Edozein kasutan, lehen bost mapetan ikusten denez, hizkera guzti hauek oso gauza gutti dute amankomunean. 1972ko artikuluan erabilitako irizpidea zehatzagoa da. Dena den irizpide hau interpretatzerakoan dudak sor daitezke. Hitz

markatu eta markatugabeen arteko bereizkuntza kontuan hartuz, talde berean Bidasoa aldeko hizkerak sartu beharko genituzke sail honetan. Mitxelenarentzat, aldiz, hizkera hauek beste sail bat osatzen dute. Bestaldetik, zentzu estuan harturik, ematen duen definizioa Bizkaiko iparraldeko hizkerei bakarrik aplikatzen zaie, antza denez.

### Aipamenak

- Alrube, S., 1934, *Observaciones al Tratado de 'Morfología Vasca' de Don R. M. de Azkue*. Bermeo: Gaubeka. [Berrarg. in Azkue (1923) 1969, 3. lib.].
- Altuna, P., 1994, "Hitz pareak". *Euskera* 39, 1543-1548.
- Arbelaiz, J. J., 1978, *Las etimologías en la obra de Luis Michelena*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión [*Kardaberaz Bilduma*, 31].
- Azkue, R. M., 1923, *Morfología Vasca*. [Berrarg. 1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 3 lib.]
- , 1931-1932, "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos". *Euskera* 4, 282-318, eta 6, 3-50.
- Basterrechea, J., 1974-1975, "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica". *FLV* 18, 353-393 eta 21, 289-338.
- Bonaparte, L. L., 1869, *Le verbe basque en tableaux*. Londres: Strangeways & Walden [Berrarg. *Opera omnia vasconice*, I, 175-442].
- , 1991, *Opera omnia vasconice*, 4 lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Erostarbe, A., 1994, "Hitz markatuak". Eskuizkribua.
- Gaminde, I., 1995a, "Zubereraren azentuaz". *Uztaro* 13, 107-128.
- , 1995b, "Bizkaieraren azentu-moldeez". Labayru Ikastegia, agertzeko.
- , eta P. Salaberria, 1995, "Lekorneko azentubidea". Eskuizkribua.
- Gavel, H., 1920, *Éléments de phonétique basque*. Paris: Édouard Champion.
- , 1960, "Réponses souletines à un questionnaire linguistique". *Euskera* 5.
- Hualde J. I., 1989, "Acentos vizcaínos". *ASJU* 23, 275-325.
- , 1990, "Euskal azentuaren inguruan". *ASJU* 24, 699-720.
- , 1991a, *Basque Phonology*. London eta New York: Routledge.
- , 1991b, "Manuel de Larramendi y el acento vasco". *ASJU* 25, 737-749.
- , 1992, "Notas sobre el sistema acentual de Zeberio". *ASJU* 27, 767-776.
- , 1993a, "On the historical origin of Basque accentuation." *Diachronica* 10, 13-50.
- , 1993b, "Observaciones acerca de los sistemas acentuales de la zona occidental de Gipuzkoa". *ASJU* 27, 241-263.
- , 1995, "Euskal azentuaren sailkapenez eta historiaz". In R. Gómez eta J. A. Lakarra, arg., *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailaren 21-6)*, 189-208. *ASJU*-ren Gehigarriak, 28. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , G. Elordieta eta A. Elordieta, 1993, "Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno". *ASJU* 27, 731-749.
- , ——— eta ———, 1995, *The Basque dialect of Lekeitio*. Donostia/Bilbo: Euskal Herriko Unib./ASJUren gehigarriak.
- eta Tx. Sagarzazu, 1991, "Acentos del Bidasoa: Hondarribia". *ASJU* 25, 139-152.
- Ibarra, O., 1994, *Ultzamako euskeraren azterketa*. Doktoradutza tesia. EHU, Gasteiz.
- Izagirre, K., 1966, "Ultzamako euskeraren gai batzuk". *BAP* 22, 403-467.
- , 1968, "Notas lexicográficas". *ASJU* 2, 49-72.

- , 1970, "El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes". *ASJU* 4, 1-248.
- Jacobsen, W., 1972, "Nominative-ergative synchretism in Basque". *ASJU* 6, 67-109.
- , 1975, "Historical implications of the Western Basque tonal accent". Eskuizkr., Univ. of Nevada, Reno.
- Jansen, W., 1992, "Acento y entonación en Elorrio". *ASJU* 26, 391-440.
- Lafon, R., 1935, "Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins". *Mélanges de Littérature, d'Histoire et de Philologie offerts à Paul Laumonier par ses élèves et ses amis*, 635-643. Paris: Librairie E. Droz.
- , 1958, "Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)". In Catalán, D., arg., *Miscelánea homenaje a André Martinet: estructuralismo e historia*, II, 77-106. La Laguna: Univ. de La Laguna.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido: arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaraz.
- Larrasquet, J., 1928, *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin*. Paris: Vrin.
- , 1934, *Le basque souletin nord-oriental*. Paris: Maisonneuve.
- , 1939, *Le basque de la Basse-Soule orientale* (Collection Linguistique, 46). Paris: Société de Linguistique de Paris.
- Laspiur, I., 1979, "Azentu diakritikoa Eibarko euskarán". *Euskera* 24, 175-268.
- Martinet, A., 1981, "La phonologie synchronique et diachronique du basque". *Iker 1: Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, 59-74. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mitxelena, K., 1958, "À propos de l'accent Basque". *BSL* 53, 204-233. [Berrarg., Mitxelena 1988, 1. lib., 220-239].
- , 1972, "A Note on Old Labourdin Accentuation". *ASJU* 6, 110-120 [Berrarg., Mitxelena 1987, 235-244].
- , 1976, "Acentuación alto-navarra". *FLV* 23, 147-162 [Berrarg., Mitxelena 1987, 245-260].
- , 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , 1981, "Galdegai eta mintzagaia euskaraz". *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 57-81. Bilbo: Deustuko Unib.
- , 1987, *Palabras y textos*. Leioa: EHU.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, 2 lib. *ASJU*ren gehigarriak, 10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Schuchardt, H., 1922, *Zur Kenntnis der Baskischen von Sara (Labourd)*. *Abhandlungen der Preussischen Akademie der Wissenschaften, Philosophisch-historische Klasse*, Nr. 1. Berlin: Akademie der Wissenschaften.
- Txillardegui [Alvarez Enparantza, J. L.], 1984, *Euskal Azentuaz*. Donostia: Elkar.